

10/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

2024KO AZAROAREN 5EAN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Jon Burgaña Agoues

EZ BERTARATUTAKOAK:

Anoetako Udaletxean, 2024ko azaroaren 5ean, arratsaldeko 19:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Jon Burgaña Agoues aritu da Idazkari lanetan.

1.- EZOHIKO BILKURARAKO DEIA PREMIAZ EGIN IZANARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak bilkurarako deialdia premiaz egiteko arrazoiak azaldu ditu.

Batetik, udal idazkari-kontuhartzailearen ordezkorekin izandako azaroak azaltzen dira: 2024ko irailaren 19tik Anoetako Udaleko Idazkaria-kontuhartzailea aldi baterako ezintasun-egoeran zegoen eta Foru Aldundiak baimena eman zion Errenteriako bitarteko diruzainari metaketa araubidean lanpostuaren funtzioak betetzeko (2090/2024 Foru Agindua).

Izendapenak urriaren 24tik aurrera ditu eraginak eta egun horretan bertan onartu egin behar zen ohiko osoko bilkuraren deialdia, gehienbat 2025. urterako ordenantza fiskalak onartzeak duen garrantzia ikusirik eta horiek onartzeko prozedurak markatzen dituen epeak kontuan hartuta. Urriaren 24an bertan hasteagatik, idazkariari ez zion denbora eman udalbatzako gai guztiak aztertzeke eta horien gaineko txostenak egiteko eta horregatik gai batzuk udalbatzako deialditik kendu ziren, ezohiko udalbatzar bat egiteko ideiarekin.

Bitartean, urriaren 30an, asteazkenean, metaketa bidez idazkariaren ordezkari lanak egiten ari zen langileak gaixotasunagatikko baja hartu zuen eta bere ordezkoa aurkitzeko lanetan jarri ginen berehala ezohiko udalbatza hori egiteko.

Kontuan hartu behar da ordenantzak aldatzeko garaian, hasierako onarpena publikatu behar dela probintziako aldizkari ofizialean eta argitalpenetik aurrera 30 egun balioduneko epea eman behar da interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik aurkeztu ezean, erabakia behin betikoa dela jotzen da eta behin betiko onespena berriro ere probintziako aldizkari ofizialean publikatu behar da. Hau da, epeekin larri gabiltza.

Bestalde, kreditu aldaketa izapidetzeko premia ere badago: 2024ko otsailaren 2ko datarekin, Anoetako Udaletxeko eraberritze energetikoa Proiektuari 250.000,00 €tako guztizko dirulaguntza ebatzi zitzaion. Dirulaguntza honen baldintzetako bat zen 2025eko abuztuaren 2aren aurretik udala eraberritzeko obra gauzatu eta fakturatu beharko du. Hori dela eta, kreditu aldaketa egitea beharrezkoa da obraren lizitazioarekin lehenbailehen hasteko. Eta hura ere aprobetxatuko dugu kontratu batetik zor dugun kantitatea ere gehitzeko.

Azkenik, aipatu "Lasarbe" A-14 Sektorearen Plan Partzialaren 2. aldaketari buruzko espedientea: 2024ko martxoaren 2ko ezohiko udalbatzan behin behineko onarpena eman zitzaion "Lasarbe" A-14 Sektorearen Plan Partzialaren 2. aldaketari. Ondoren, maiatzaren 28ko ohiko udalbatzan, dagokion prozedura jarraituz jendaurreko epea amaituta behin betiko onarpena eman zitzaion. Honen ondoren Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zen proposamena beraien onarpena lortzeko asmoz. 2024ko urriaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 191 zenbakian, hainbat zehaztapenen falta adierazten zuen eta dokumentu berri bat prestatu dugu zehaztapen berri hauekin. Plan Partzialaren 2. Aldaketa hau asko luzatzen ari zaigu eta honen eman beharreko pausuak atzeratze ari zaizkigunez, larrialdizko gaia deritzogu.

Behin Alkateak ezohiko bilkurarako deialdia premiaz egin izanari buruzko arrazoiak azaltzeaz bukatutakoan, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

BAKARRA. Ezohiko osoko bilkura honen deialdiaren premiazko izaera berrestea.

Behin Udalbatzak ezohiko osoko bilkuraren premiazko izaera berretsita, Alkatearen aginduz bilerari hasiera eman zaio, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

EBAZPENAK

2.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA ETA UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Urtero legez, urte sasoi honetan Udalek hurrengo ekitaldiko udal zerga, tasa eta prezio publikoen inguruan zenbait erabaki hartzen dituzte, herritarrengan eragin zuzena izan ohi dituztenak.

Anoetako Udalari dagokionez, Udalbatzarrak udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren eta zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketen behin-behineko onespena ematera doa, araudiak ezarri bezala. Behin onespenean hau GAOn argitaratuta, herritarrek 30 egun baliiodunen epea dute edozein erreklamazio edo iradokizun egiteko onespenerari, eta erreklamazio edo iradokizunik ez badago, behin betikotzat joko dira onartutako aldaketak.

EAJ taldeko Nuria Carbonell Mirandak hitza hartu du esateko auzokonpostarekin bezala beste hondakinekin eta beren kuboekin ere kontrola emateko mekanismoak behar direla zaborren, eta 2025ean zaborren kuboen kontrolerako txip-ak abian jarri beharko litzatekeela eta udalean ingurumen teknikari baten beharra adierazten du. Alkateak erantzuten du, berez, udaleko AOTren betebeharrak nagusietakoa gai hori jorrazteko dela, baina gorabehera asko daudela udal antolamenduan eta beste zeregin askorekin partekatu behar dira lanpostu honetako funtzioak.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzea, hurrengo testuekin:

Feria eta herri festetarako postuetarako:

“ ...

<i>Txoznak</i>	<i>40 € festa guztietarako</i>
<i>Bestelako postuak</i>	
<i>Mugitzen den aparatu bakoitzeko</i>	<i>12 €/metro lineal/festa guztietarako</i>
<i>Txurreria</i>	<i>12 €/metro lineal/festa guztietarako</i>
<i>Kaseta bakoitzeko</i>	<i>20 €/metro lineal/festa guztietarako</i>
<i>Bitxitegiak eta beste salmenta postuak</i>	<i>12 €/metro lineal/festa guztietarako</i>
<i>Janaria saltzeko furgonetak</i>	<i>12 €/metro lineal/eguneko</i>

... ”.

Feria eta Asteroko merkatutarako:

“ ...

<i>1. sektorea (nekazaritza hustiapen txartela aurkeztu beharko dute)</i>	<i>0 €</i>
<i>Herriko denda eta komertzioek merkatuan postua jartzea</i>	<i>0 €</i>
<i>Besteak</i>	<i>4 € m²ko</i>

...”.

BIGARRENA. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa behin behinean onartzeko, jarraian agertzen diren aldaketetan jasotakoaren arabera:

ERANSKINA

F. Baratze publikoen erabilera eta esleipena

Herri baratzen esleipendunak 50 €ko fidantza jarri beharko du, baratzen ordenatzen zehazten den moduan. Baratza uzten den garaian edo esleipena amaitzen denean bueltatuko da.

Esleipendunaren kuota 100€/urteko izango da eta esleipendunak hala erabakita baratzaren esleipena bertan behera uzten badu ez da parte proportzionala bueltatuko, alegia urte osoko esleipen kuota kobratuko da.

H. Zaborbilketa

H.1 HIRUHILABETEKO TARIFAK/ TARIFAS TRIMESTRALES

a) Egoilarrek helbidetzat dauzkaten etxebizitzak

Viviendas que se destinan a domicilio de sus ocupantes:

– Hiruhilabeteen/ Trimestre:42,65 euros

b) Lokal komertzialak eta Zerbitzuak:

Locales: Comerciales y servicios:

– Hiruhilabeteen/ Trimestre:94,13 euros

c) Taberna, jatetxe, jolas-elkarte, janaridenda, arrandegi eta antzekoak;

Bares, rtes, pescaderias y similares sociedades recreativas:

– Hiruhilabeteen/Trimestre: 129,64 euros

d) Enpresak

Empresas:

– 250m² bitarteko jarduerak/hiruhilabeteen
Actividades hasta 250 m²/trimestre..... 168,51 euros

– 251 eta 1.000 m² bitarteko jarduerak/hiruhilabeteen
Actividades de 251 a 1000 m²/trimestre233,21 euros

– 1.001 m² gorako jarduerak/hiruhilabeteen
Actividades superior a 1.001 m²/trimestre308,61euros

Auzokonpostan edo autokonpostan izena eman, eta zerraila elektronikoaren bidez bere erabilera ziurtatzen duten erabiltzaileek % 10eko hobaria izango dute zaborraren tasan”.

I. Udal frontoiaren erabilera

Anoetako Udalak frontoiko aldagelen erabilera onar dezake kirol aktibitatearik burutu ez duten pertsona edo taldeen aldetik, kasu honetan ez da tasarik aplikatuko.

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

- 1.- Erabilpen-erreserba partikularra egin nahi dutenak Anoetan erroldatuta egon behar dira, eta Udalarekin dituzten zerga eta tasa obligazioetan eguneratuta egon, hau da, inolako zorrik ez izatea Udalarekin.
- 2.- Erabilpena arrazoi sozial edo kulturalengatik egiten bada, ez da tasarik aplikatuko.
- 3.- Tarifa %50ean gutxituko da Gazte txartelaren jabe direnei, egunean ordu beteko muga jarritz.
- 4.- Aurreko bi puntuetan xedatutako hobariak ez dira aplikatuko frontoiaren erabilera taldekakoa denean, eta ez banakakoa. Pertsona bati dagokion hobaria ez zaio talde osoari ezarri.
- 5.- Epe batean zehar frontoia erabiltzeko baimena eman eta dagokion kitapena egin ondoren, baimena bertan behera utzi eta tasaren proportzioa itzultzea eskatzen denean, erabilera gertatu ez den hilabete osoei dagokien tasa zatia itzuliko da bakarrik

K. Kultura eta gizarte mailako jarduerak

HOBARIAK

(...)

Kasu batzuetan, baliabide eskasagatik, bestelako kuota bat ezar daiteke (herena edo laurdena), edota baita kuotaz salbuetsi ere udalak hala erabakitzen duenean, udaleko gizarte-zerbitzuek dagokion prozedurari buruzko txostena egin ondoren

L. Udal kiroldegian ikastaro edo kirol aktibitateak

TALDEA/GRUPO	ADINA/EDAD	URTEKOA/ANUAL	HILABETEKOA/MENSUAL
Haurrak/ Niños-as	0-15 urte/años	30,00 €	6,00 €
Gazteak/Jóvenes	16-24 urte/años	96,00 €	12,00 €
Helduak/Adultas	25-64 urte/años	114,00 €	16,00 €
Adinekoak/ Tercera edad	65tik gora	96,00€	12,00€

2.- EGUNEROKO SARRERAK

TALDEA/GRUPO	ADINA/EDAD	EGUNEROKO SARRERA (€) ENTRADA DIARIA (€)
Haurrak/Niños-as	0-15 urte/años	2,50 €
Gazteak/Jóvenes	16-24 urte/años	3,00 €

Helduak/ adultas	25-64 urte/años	5,00 €
Adinekoak/ Tercera edad	65tik gora	3,00€

3.- KANTXAREN ALOKAIRUA

	TARIFAK (orduka/por horas)		BALDINTZAK CONDICIONES
	Haurrak/ Niños-as	Gainontzekoak/ Restantes	
Abonatuak/Abonados	5 €	14€	
Ez abonatuak/No abonados	10€/orduko edo eguneko sarrera ordaindu/10 €/hora o entrada de un día	22€/orduko edo eguneko sarrera ordaindu/22 €/hora o entrada de un día	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona edo talde bakoitzak gutxienez ordu bateko eta gehienez egun bateko erreseba egin ahal izango dute, erreseraturiko ordu bakoitza dagokion prezioan ordainduz. Lehentasuna talde federatuek eta herritarrek izango dute. • Cada persona o grupo podrá realizar una reserva mínima de una hora y máxima de un día, abonando cada hora reservada al precio que corresponda. <p>Tendrán prioridad los grupos federados y los vecinos de Anoeta.</p>

HOBARIAK APLIKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

(...)

- Kasu batzuetan, baliabide eskasagatik, bestelako kuota bat ezar daiteke (herena edo laurdena), edota baita kuotaz salbuetsi ere udalak hala erabakitzen duenean, udaleko gizarte-zerbitzuek dagokion prozedurari buruzko txostena egin ondoren.

M. Etxez etxeko laguntza zerbitzua

3. TASA GEHIENEZKO TASA HAU APLIKATUKO ZAIE ERABILTZAILEEI:	3. EL TIPO MÁXIMO APLICABLE A LOS USUARIOS SERÁ EL SIGUIENTE
Tasa Gehienezko tasa hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:	Tasa: este tipo máximo será de aplicación a los usuarios:
Asteko ordu prezioa: 22,36 € Precio hora semanal	
Larunbat eta jai egunetako orduko prezioa: 26,00 € Precio hora sábados festivos	

Ñ. Udal eraikin eta zerbitzuetarako giltza elektronikoa:

	Lehenengoa	Bigarrena
Txartel elektronikoa	Doan	2€
Giltza elektronikoa		4€

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK

- Erabilera puntual baterako denean, erabilera hau bukatutakoan udalean itzuli beharko da giltza edo txartela.
- Txartelak edo giltzak funtzionatzen ez badu eta funtzionatzen ez duen txartela aurkezten bada, txartela doan aldatuko da.
- Galdu, lapurtu, hautsi edo edonolako arrazoiagatik beste giltza bat eskatzen badu erabiltzaileak, eskaera datan indarrean dauden udal ordenantza fiskalean zehaztutako kopurua ordaindu beharko da.

HIRUGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoa.

LAUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

BOSGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

3.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-000012-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta kreditu gehigarri modalitateari bidezko kreditu aldaketaren 2024- KALD-000012-00 espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko urriaren 16ko probidentziaren edukia azaldu du: kreditu aldaketaren kopururik handiena Udaletxeko eraberritze energetikoaren egitasmoa kofinantziatzera dator, arestian azaldu bezalaxe, diruz lagundu baita egitasmoa eta hori gauzatzeko epeak motzak dira.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2024an aplikatu beharrekoari dagokionez esan horiek zehaztu gabe daudela oraindik. Europar Batasunak 2024ko ekitaldirako arau fiskalak berraktibatzea adostu badu ere, akordio hori ez da Espainiako ordenamendura ekarri.

Ondoren, EAJ taldeko Jaime Peon Ormazabalek Udaletxeko eraberritze energetikoaren Proiektua pasatzeko eskatu du eta horrela egingo dela esan du Alkateak.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	190.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	800.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		990.000,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	990.000,00
GUZTIRA		990.000,00

BIGARRENA. Ebazpen hau eta horretarako izapidetutako espediente jendaurreko informazioan jartzea 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.3 artikulua eta berak zuzendutako 15, 17 eta 18 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak ezarriz. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

4.- “LASARBE” A-14 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALAREN 2. ALDAKETA BEHIN BEHINEAN ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alkateak hitza hartu du eta gai hau bertan behera geratzea iragartzen du, bere onespena Alkatearen Dekretu bidez egingo baita.

Idazkariak orduan dio ebazpen mota hau, behin-behinean onartzekoa denez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j artikulua arabera, Alkatearen eskumena dela, baina behin betikoz onartzeko ebazpena udalbatzarrak onartu beharko duela.



Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:18etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

